

BALOREZKO PROPOSAMENA

Azken urteotan, emakumezkoen kirolak eta, zehazki, emakumezkoen futbolak gorakada handia izan du. Futbola kirolik jarraituenetakoa eta gogotsuena den arren, emakumezkoen aldaerak ez du inoiz ikusgarritasunik izan eta merezi duen errekonozimendua jaso. Zorionez, Alexia Putellas, Aitana Bonmatí eta FC Bartzelona bezalako taldeei esker, emakumezkoen futbola gero eta ezagunagoa eta babestuagoa da. Aldiz, aurrerapen hori ez da nahikoa, eta emakumeek oraindik ez dituzte abantaila berberak, gizonak egiten duten bezala.

Alde horiek batez ere arlo ekonomikoan gertatzen dira. Adibide nabarmenetako bat jokalariek jasotzen duten soldata da, gizon futbolariak jasotzen dituzten soldata astronomikoak baino askoz baxuagoak dira emakumeenak. Gainera, emakumezkoen futbolak ikusgarritasun gutxi duenez, babes ekonomiko txikia jasotzen du babesleen eta marken aldetik. Horren ondorioz, futbolariak zailtasun handiak dituzte beren lanbidea garatzeko orduan.

Bere arazo handienetako bat lesioak dira, gero eta gehiago errepikatzen baitira goi mailako jokalarien artean. Izan ere, ez dute beren gorputzerako ekipamendu egokirik, eta **gizonaren gorputzerako diseinatutako kirol materiala erabili behar dute, eta horrek arazoak sortzen dizkie.**

<https://www.elmundo.es/deportes/futbol/futbol-femenino/2022/12/31/63ae124afc6c839d498b459a.html>

Gure enpresaren helburua da emakumeentzako kirolean espezializatutako marka bat sortzea, haien anatomia kontuan hartuta, emakumezkoen eta gizonzkoen gorputza desberdina dela eta. Modu honetan lesioak murriztuko lirateke. Konkrétuki, gure enpresan emakume kirolariei zuzenduta dagoen materiala salduko dugu, kirolaren sektorea gizonen emakumei baino zuzendutagoa baitago.

Emakumeen eta gizonen artean hainbat desberdintasun daude. Desberdintasun fisiologikoak eta anatomikoak ugariak dira, hala nola, emakumeen pelbis-a zabalagoa da gizonekin konparatuz, belauanean eta orkatilan eraginda duena, eta emakumeek muskulu masa gutxiago dute gizonekin konparatuz. Horregatik, haien lotailuak ez daude hain babestuta eta kaltetuta amaitu dezakete.

Gainera, biologikoki, emakumeek malgutasun handiagoa dute gizonak baino. Haien lotailuak malguagoak dira eta



luzatzen ohi dira artikulazio-mugimendu gehiegi edo errepikakorrak egiteagatik.

Haien lotailuak eta tendoiak hormona-maila altuak direla eta ahultzen dira ere, bere zurruntasuna murrizten delako.

Bestalde, Bitamina B12ko, B3ko, azido folikoko, burdinako, magnesioko, fosforoko eta proteinako urritasuna izan dezakete emakumeek. Gainera kaltzio eta bitamina D eskasia dute, funtsezkoak diren bi elikagai osasun muskular eta osea ona mantentzeko.

Azkenik, emakumeen mugimenduak kirola egiterako orduan desberdinak dira gizonekin konparatuz, esaterako, saltoetan belauneko presioa areagotzen du eta lesio arriskua areagotzen du.

Hau guztiak kirola egiterako orduan gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak areagotzen ditu, hortaz, desberdintasun hauek kontuan hartu beharko lirateke.

Pandemia eta gero areagotu zen futbolera jolasten zuen jendea, %12-a igo zen gizonen taldeetan eta **%30 igo zen** emakumeen taldeetan. Igoera honek eragin handia izan du emakumezkoen futbolearen, honekin lesioen zenbakia ere igo da. Azken urteetan, emakume futbolariak %6,45 ziren eta guztira %15,73 lesio izan zituzten.

Emakume futbolariak lesionatu egiten dira gizonak baino 1,5-3 aldiz gehiago. 100 emakume jokalaritik batek lotailu gurutzatuako lesioak izaten ditu, bitartean, gizonen artean 300-tatik batek.

"El Mundo" edo "20 minutos" bezalako egunkarietan horrelako berriak aurkitu ahal dira.

- *"Las botas de fútbol actuales están basadas en el pie de los hombres. No se tiene en cuenta que la forma y el volumen del pie de las mujeres son diferentes. Hoy no hay ninguna bota en el mercado especialmente pensada para las jugadoras", expone a EL MUNDO Katrine Okholm Kryger.*

Hau dena dela eta, gure enpresak inoiz egin ez dena diseinatuko du. Gure enpresa berezia da soilik emakumezkoen anatomiari egokituta dagoen kirol produktuak saltzeagatik, eta hauek aldakuntza handi bat ekarriko dute gizartean. Honela, emakumeek ez dute zailtasunik izango edozein kirol egiterakotan, beharrezkoa den materiala eskuratu baitute.

Gure produktuen diseinua garatzeko, emakumeen anatomia aztertuko dugu gero eta emakumeen gorputzari hoberen egokitutako produktuak sortuz.

Proiektu honen bidez, txikitan futbolean jokatu ezin izan zuten, aurreiritzien eta gizarte-diskriminazioaren ondorioz, neska horiei guztiei lagunduko diegu eta ikusgarritasuna emango diegu. Hemendik aurrera, gure zapatilekin horrek arazo izateari utziko dio, eta neskek kirola gozatu ahal izango dute minik hartu gabe.

Prezioari dagokionez, gure zapatilek egungo futbol-zapatilen antzeko prezioa izango dute. Gure enpresak garatuko dituen zapatilak, berritzaileak dira, lehenago kirol-dendetan ikusi ez direnak. Gure helburua da hau normaltasunera eramatea eta proiektu honek oso iraupen luzea izatea merkatuan.

Nahiz eta garestiak irudi, zapatila hauek kalitate oso oneko materialez eginak daude. Emakumeen gorputzaren anatomiar buruzko ordu askoko ikerketaren ondoren egin dira, bai eta proba asko hainbat emakumerekin oinerako egokiak diren ala ez egiaztatzeko ere. Gainera, tailuaren arabera, prezioa aldatu egiten da; normalean, haurren neurriak merkeagoak dira nerabeenak eta helduenak baino. Beraz, gure zapatila gehienek **prezioa 80 eta 200 euro artekoa** izango da, aurrerago azalduko dugun bezala.

Aurrez aipatu dugun bezala, gure zapatilak kalitate oneko materialez eginak dira, erabiltzen dituzten emakumeek deserosotasunagatik eta minagatik lesiorik izan ez dezaten. Halaber, emakumeen gorputzari eta anatomiar buruzko ikerketa egiteaz gain, oinaztura eta gehiago ere aztertu dira.

Diseinuak ere pentsatuta ditugu. Diseinu asko egongo dira estanpatu eta kolore desberdinekin, erosleak gustukoena aukeratu ahal izan dezan. Gainera, norberaren zapatilak pertsonalizatzeko aukera eskainiko, dendan daudenak ez badira eroslearen gustukoak.

Amaitzeko, esan bezala, zapatila hauek **segurtasuna** emango diete futbolean jolastu nahi duten neska eta emakume guztiei, eta horretaz gozatu dute, zapatilak haientzat egokiak ez direla arduratu gabe. Horrela, ez dute lesiorik izango erabiltzen dituzten zapatilak emakumeen anatomiarako egokiak direlako.

<https://www.asics.com/es/es-es/frontrunner/articles/diferencias-entre-zapatillas-de-hombre-y-mujer-las-conocias#:~:text=La%20forma%20del%20pie%20de.abiertas%20en%20la%20zona%20delantera>.